

Joseba Agirreazkuenaga Zigorraga

Joxe gogoan, norberaren esperientzian barrena

Iaz, 56ko belaunaldia, *Jakin Taldea eta Joxe Azurmendi* EHUKo uda ikas-taroaren baitan, uztailaren 29ko arratsaldean, Joxek hartu ninduen etxean, Iñaki Zabaletaren bidez. Bakarrik zegoen, Orixeren debo-ziozko liburuan murgildurik. Gure arteko elkarrizketak berehala egin zuen 1970eko hamarkadara; besteak beste, poeta baten aurrean iza-nik, azaldu nion poesiaren bidez izan nuela haren izenaren eta pro-dukzioaren berri, 1971-1972ko ikasturtean.

Derion Filosofia ikasketak burutzen, Karmelo Etxenagusiak garaian garaiko poesiari buruzko ikasturtea prestatu zuen. Gabriel Arestiren poemagintzaren harira atera zen Azurmendik 1968an *Olerti* aldizka-rian argitaratu zuen *Manifestu atzeratua*. Poema profetikoa dugu, eta bertan hausnarketa egiten du, aitortzarik ez zuen Euskal Herri baten kondaira kontatzen du, ukazioaren bidez sakoneko beste historia ba-terako egiaren bideak azalduz.

Manifestu atzeratua hartu nuen goizean gure ekarpenaren abiapuntu eta 56 urteren buruan gure arteko hizketagai, 1960-1970eko hamar-kadetako historiografiaren ebaluaziorako ezinbestekoa delako. Den-boran zeharreko gertakizunetara hurbiltzeko eta azalpenetan sakon-tzeko, premiazkoa iruditzen zait poetaren ikusmira eta begiratzeko era. Eta ondo gogoan zuen bere poema hori, memoria ordurako gal-tzear zuela esaten zuen arren. Erbestean zegoela eta Euskal Herriko gertakizun larri eta latz baten harira gaueko ordu txikietan bat-ba-tean sortu zuela azaldu zidan, eta, Plutarkoren iritziaren ildoan, er-bestetik norberaren herriko gai nagusiak osotasunean hobeto haus-nartzen direla.

Behin baino sarriago gogoratu dit Joxek historia irakurle sutsua zela; nire ustez, historialaria ere izan bada, pentsamenduaren historiaren arloan, bereziki.

Hitz berdeak izenburua izan zuen haren poemen bildumak, eta urte berean *Hizkuntza, etnia eta marxismoa* (1971) izeneko saiakera argitaratu zuen eta eskuratu genuen isilpean, aldi berean irakurtzeko irakurgaiak. Ikasle gogotsu batentzat bazka ezin mamitsu eta ederragoak. Biak izan baitira gure hezkuntza intelektualean premiazkoak.

1984an, Joseba Intxaustiren bidez idatzi nuen ‘Euskal Herriko historia ekonomikoa’ *Euskal Herria. Historia eta gizartea* entziklopediarako, azken bi mila urteotako bilakaera; Joxe zen edukien arakatzailerik eta erre-dakzio buru, eta biek ontzat eman zuten testua. Liburu berean, pentsamenduak Euskal Herrian izandako bilakaerari buruz idatzi zuen berak entziklopediarako, ekarpen sistematiko mamitsua, aspalditik umatua.

Baina bereziki gogoan gordeko dut harekin izandako elkarlana, elkarrekin antolatu baikenituen nazioarteko bi jardunaldi eta ikerketa lerro, Eusko Ikaskuntzaren laguntzaz: lehena, 1995ean, Oñatiko Unibertsitatean, *Wilhelm von Humboldt: hezkuntza, hizkuntza eta bi herriren arteko zubia* abiapuntutzat harturik. Alemaniako eta Euskal Herriko hemeretzi ikerlari eta adituren arteko bilgunea izan zen, eta *RIEV* aldizkarian argitaratu genituen ekarpenak 1996an. 2001ean jarraitu genuen, Bilbo, Gasteiz eta Gernikan ekitaldiak antolatuz; *RIEV* (2003) aldizkarian daude irakurgai sarean hamalau ikerlariren ekarpenak. Ondoren, Joxek beste monografia mardul bat argitaratu zuen, *Humboldt. Hizkuntza eta pentsamendua* (UEU, 2007). Ohorea izan zen niretzat gure arteko lankidetzaren egitasmoan.

Eszeptikoa –begirale, hausnartzaile izaera, jatorrizko esanahian– eza-gutzan sakontzeko, pirronismoan eta nihilismoan erori gabe, sustrai finkoak eraiki dizkigun poeta, historialari eta filosofo praktikoa dugu Joxe, kontraesanak bilatzen, erronkak jartzen, ikerlari gogotsua, pentsalari trebea eta lehiakorra.

Euskal herritarren historiografiara ekarri behar dugu, pentsamendua-ren eta ideologiaren bilakaeraz ekarpen sistematikoak burutu dituelako.